

• **Futbola**

Reala: Luis Urangak erabateko babesa agertu die jokalariei eta Bernd Krauss entrenatzaileari → **31**

• **Eskubaloia****Portland San Antonio:**

Kadetten bisitari izango da gaur Arrosadian (16:30), Europako Errekopako partidua jokatzeko → **36**

Athletic ♦ Sabino Padillak esan du erdilaria jokatzeko prest dagoela: «Luis Fernandezek berarekin konta dezake»

Imaz, noiz aterako zain

Asteazkenean Sondikaren kontra ondo ikusi zuen bere burua zelaian

Patxi Gaztelumendi / Bilbo


ANDONI IMAZ Athleticen jokalaria bere burua zelaia ateratzeko prest ikusten du dagoeneko. Belauna erabat sendotuta ikusten du, eta asteazkenean Sondikan jokatutako partidua ondo amaitu zuenez, Athleticen koloreak defenditzeko gogoz agertu zen atzoko entrenamendua ostean. «Uste dut une aproposa dela hau, eta nere asmoa lehenbailehen jokatzen hastea da». Horrenbeste denbora geldirik egon ostean, normala da Imazek jokatzeko gogoia izatea.

Sabino Padilla Athleticen mediku buruak, bere aldetik, Imaz ondo dagoela adierazi zuen, «Andoni Imaz abuztutik bat gehiago da taldearen barruan, eta oso ondo ari da. Egunetik egunera hoberanzko joera daroa, eta edozein momentutan berarekin konta dezake Luis Fernandezek».

Entrenatzailea bera eta Andoni Imaz, azken entrenamenduetan gipuzkoarraren belaunari buruz solastu dira, eta Imazek une oro ondo ikusten duela adierazi dio.

Orain, hitza Luis Fernandezek dauka. Imazek, hiruzpalau partidutan %100an izango dela aurreratu zuen, eta Athleticen zaletuen aurrean, bereak eta bi eman ditzazkela erakutsi gura du.

Bost puntu baino ez ditu egin taldeak orain arte, eta oraingo hau, zelaia ateratzeko une aproposa denez galdetu ostean, Imazek, «jokatzeko une guztiak aproposak» direla baieztatu zuen. Argi dago, Imazek jokatzeko gogo itzelak ditu eta horrela jakinarazi dizkio entrenatzaileari ere. «Nik eguneroko lanean al dudan bezala lagundu gura dut taldea talde hau».



XOUSA SIMAL

Andoni Imaz hasi da argia ikusten, eta berriro jokatzeko irrikitan dagoela esan zuen atzoko entrenamendu saioa amaitu ostean.

Roberto Rios bost astetan baja izango da

P. G. / Bilbo

AZKENIK argitu da Roberto Riosen izterreko lesioa: haustura txiki bat dauka, eta Sabino Padillak, ekografia aztertu ondoren, datozen lau edo bost asteotan jokalaria zaurigorria baja izango dela aurreratu zuen.

Athleticeko mediku buruaren iritzian, tratamendua ostean jokalaria poliki poliki sendatuko da; izan ere «oso haustura deli-

katuak izaten baitira izterrekoak». Lehenago ere, pronostiko hori egin zuen Sabino Padillak, eta emaitzek arrazoia eman zioten. Atzoko entrenamenduan dagoeneko ez zuen parterik hartu bizkaitarrak eta luzarobaten bera gabe atera beharko dira Luis Fernandezek ekipokoak. Orain itxarotea besterik ez dago Riosen kasuan.

Bittor Alkiza bere aldetik,

agian baja izan daiteke martitzenean Malagaren aurka. Izan ere, herenegun talde bategi batean zapaldu eta behatz batean matxura egin zion. Atzo, Lezaman entrenamendua normaltasun osoz burutu bazuen ere, bukatu eta jarraian kezkatu agertu zen Sabino Padilla aurrean.

Lehenagotik ere, behatz lodian patologia txiki bat du Alkizak, eta horrek mina

areagotu egin dio. Entrenamendua normaltasunez egin arren, bukatutakoan, oinez ere mina zeukan gipuzkoarrak. Litekeena da, eta mina igaro ezean, martitzenean partiduan Alkizari gabe ateratzea Athleticen hamaikakoa. Gainera, ikus- teko da Espainiako selekzioan dauden hiru jokalariek zenbat minutu jokatzen duten, Padillak behintzat zehazki neurtuko du hori.